



LEHEN HEZKUNTZAKO 2. MAILAKO IKASLEENTZAT ARIKETAK

1. Lehen pausoa, proposatutako bi landare espezetatik bat hautatzea izango da, bidali dizuegun eranskina erabili beharko duzue horretarako.

2. ZER DAKIGU?

- Zer uste duzu behar duela landare batek bizitzeko?

- Zergatik uste duzu ez dagoela ia landarerik basamortuan? Eta zergatik daude hainbeste landare eta da hain berdeak Euskal Herria?

- Landare mota desberdin asko daudela badakigu. Aipatu lore baten, zuhaitz baten eta barazki baten izenak.

3. ZER EGIN?: gabonetako postala


Landareen inguruan gehiago dakizu orain, beraz hautatu duzuen espeziea gogoan izanda, sortu zure gabonetako postala! Zuhaitz eta landareetatik datorren edozein material erabili dezakezu, hostoak, txotxak, goroldioa, haziak, eta baita margo eta bestelakoak ere. Aprobetxatu etxe inguruan dituzun parke eta lorategietako materiala!

4. Bidali Dbus-era argazki bat!

Geuri ere gustatzen zaizkigu gabonetako postalak, noski baietz. Bidaliguze denon artean sortutako postal bat, edo sortu dituzuenen argazki bat! Hartara ongi jakingo dugu zein izan den hautatu duzuen espeziea gure autobusa izendatzeko. Ongi pasa!

ERANSKINA: espezieen deskribapena

Armeria euscadiensis, Armeria



Kostaldeko labarretan bizi da, gazitasun handia eta haizea dagoen lekuetan bizitzeko ondo egokituta baitago.

Espezie endemikoa da, honek esan nahi du, Euskal Herrian baino ez dagoela. Landare hau Urgullen deskribatu zen lehenengo aldiz, 1976an.

Martxoan eta uztailean loratzen da, eta ia urtero loratzen da berriro udazkenean bete-betean, irailetik urrira bitartean.

Loreak arrosa kolorekoak dira, eta itsura borobileko multzotan agertzen dira.



Taxus baccata, Hagina

Zuhaitz hostoiraunkorra da, ez da 20 metroko altuerara iristen, eta adaburu zabal eta trinkoa du. Enbor arre grisaxka, sendo eta bihurria du.

Bere hostoak, orratz formakoak eta berde ilunak dira. Fruituak gorri biziak dira eta arilo izenez ezagutzen den zati deigarri bat dute, haziak biltzen.



Oso zuhaitz pozoitsua da, ehun guztietan TAXINA izeneko oso substantzia arriskutsua baitu. Elementu horretatik taxola ateratzen da, zeina tumoreen aurka erabili ohi den.